



Ikasturteko programazio didaktikoa

ikastetxea:	IKASBIDEA IPI IKASTOLA	kodea:	010012
etapa:	DBH	zikloa/maila:	4
arloan/irakasgaia:	EKONOMIA		
osatutako arloak/irakasgaiak			
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak	<ol style="list-style-type: none"> 1. Hizkuntza eta komunikaziorako kompetentzia 2. Matematikarako kompetentzia 3. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia 		
irakasleak:	ASIER ASKASIBAR BIZKARRALEGORRA AINHOA VILLAVERDE BARRUTIABENGOA	ikasturtea:	2022-2023

Zeharkako kompetentziak :

1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.
2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
3. Elkarbizitzarako kompetentzia.
4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
5. Izaten ikasteko kompetentzia.

Helburuak	Ebaluazio-irizpideak
<ol style="list-style-type: none"> 1) Zientzia ekonomikoaren oinarriak eta oinarriko terminologia jakitea, eta ekonomiak enpresen eta pertsona fisikoen eguneroko bizitzan dituen ondorioak aintzat hartzea. Horren helburua da etxeko ekonomiako eta enpresako ekonomiako ohiko egoerei ongi eta irizpide egokiez aurre egitea. 2) Enpresa baten egituraren ezaugarri nagusiak aztertu eta interpretatu, bereizi eta baloratzea, enpresaren berezko alderdi teknikoak eta sozialak zein diren jakiteko. 3) Norberaren alternatiba ekonomikoak planteatu, aurrekontuak diseinatzea eta kontsumitu edo aurreztu aukeratzea, norberaren antolaketa ekonomikoa baloratzeko, eta finantza-merkatuak horretarako eskura jartzen dituen tresnak ere bai. 4) Administrazio publikoek pertsonen eta enpresen bizitza ekonomikoan zer eragin duten jakitea, eta haren zerga-sistema eta gizarte-ongizatean duen eragina jakitea. Horren helburua da errentaren birbanatze-eginkizunaz jabetzea eta ohartzea zer zerga-betebehar ditugun herritar garenez. 	<ol style="list-style-type: none"> 1) Ekonomiaren oinarriko printzipioak ezagutzea, printzipio horiek baliabideei eta premiei dagokienez zer ondorio dakartzaten jakitea, eta erabaki ekonomikoek une oro herritarren bizitzan eragiten dutela ohartzea. 2) Terminologia ekonomikoa ezagutzea eta terminologia horrekin ohituta egotea. 3) Enpresek izan ditzaketen forma juridikoak deskribatzea. 4) Ekoizpen-prozesuko ezaugarri nagusiak aztertzeke gai izatea. 5) Enpresek zer finantziario-iturri dituzten jakitea. 6) Kasu errazetan, enpresen diru-sarreraren eta kostuen egitura zehazteko eta haien irabazirik kalkulatzeko gai izatea. 7) Aurrekontu pertsonal bat egiten eta zer diru-sarrera eta gastu mota dauden bereizten jakitea. 8) Modu arrazionalen erabakitzea bere alternatiba ekonomikoen artean, haiek norberaren eta gizartearen ongizatearekin lotzea, eta aurreztearekiko jarrera positiboa izatea.

<p>5) Magnitude ekonomiko nagusiak interpretatzen jakitea, dagozkion kalkulu matematikoak eginez, eta grafiko bidez identifikatzea, jakiteko zer alternatiba dauden aukeran arazo ekonomikoei eta sozialei konponbidea emateko eta garapen iraunkorra lortzeko*.</p> <p>6) Globalizazio ekonomikoak zer ondorio dituen aintzat hartzea, eta haren abantailak eta desabantailak irizpide kritikoz azaltzea, egungo gertaera ekonomikoak globalizazioaren ingurune horretan aztertzeke.</p>	<p>9) Diruaren oinarrizko funtzionamendua jakitea eta banku-kontuen motak eta ordainketa-baliabide moduan ematen diren txartelak bereiztea*.</p> <p>10) Administrazio publikoen oinarrizko diru-sarreraren iturriak eta gastuak aztertzea, egoki interpretatzea banaketa hori adierazten duten grafikoak, eta ongi ulertzea zor publikoaren eta defizit publikoaren kontzeptuak.</p> <p>11) Zerga-sistemak errenta birbanatzeko duen garrantzia onartzea eta horretarako zer tresna erabiltzen diren jakitea.</p> <p>12) Enpresei eta pertsona fisikoei ezartzen zaizkien zergak bereiztea eta zerga-betebeharrak betetzeak zer-nolako garrantzia duen ulertzea.</p> <p>13) Euskal Autonomia Erkidegoko zerga-sistemaren eta lurralde komunekoaren arteko desberdintasunak ezagutzea.</p> <p>14) Interes-tasak, inflazioak, langabeziak eta antzeko magnitudeek zer adierazten duten jakitea eta kontzeptu horiekin lotutako grafikoak interpretatzea*.</p> <p>15) Garapenerako politika makroekonomikoko zenbait aukera balioesteko gai izatea, dela garapen ekonomikoa, dela gizarte-garapena*.</p> <p>16) Globalizazio ekonomikoak, nazioarteko merkataritzak eta integrazio ekonomikoko prozesuek pertsonen bizitza-kalitatean eta ingurumenean zer eragin duten ulertzeko gai izatea.</p>
---	--

(*): Ez dute lehentasunik izango itxialdia gertatuz gero, gainontzekoak minimo bezala uler daitezke.

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 4. mailako adierazpenezko, prozedurazko eta jarrerazko edukiak eduki multzo hauetan biltzen dira:

1. **multzoa:** Eduki komunak
2. **multzoa:** Oinarrizko ideia ekonomikoak.
3. **multzoa:** Ekonomia eta enpresa
4. **multzoa:** Etxeko ekonomia
5. **multzoa:** Administrazio publikoen ekonomia eta diru-sarrerak eta gastuak.
6. **multzoa:** Ekonomia eta magnitude ekonomikoak
7. **multzoa:** Informazioa enpresan

1.	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. Ebaluazioa	2. Ebaluazioa	3. Ebaluazioa
	1. GAIA: EKONOMIA, ZIENTZIA BALIAGARRIA (7 saio) 2. GAIA: EKOIZPENA ETA HAZKUNDEA (7 saio) 3. GAIA: MERKATUAK ETA ENPRESA (9 saio) 4. GAIA: ENPRESA ETA HAREN INGURUNEA (9 saio)	5. GAIA: FINANTZEN PLANGINTZA (10 saio) 6. GAIA: FINANTZEN OSASUNA (9 saio) 7. GAIA: DIRUA ETA HURA ERABILTZEKO MODUAK* (7 saio) 8. GAIA: EKOIZPENA ETA PREZIOAK* (8 saio)	9 GAIA: LAN MERKATUA* (10 saio) 10 GAIA: ESTATUAREN KONTUAK (9 saio) 11 GAIA: NAZIOARTEKO MERKATARITZA ETA EUROPAR BATASUNA* (9 saio) 12 GAIA: GLOBALIZAZIOA ETA MUNDU EKONOMIAREN DESOREKAK (6 saio)

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

- Irakasleak unitate didaktikoari dagozkion edukiak azalduko ditu ozenki ikasle guztientzat, horretarako liburuaz eta bideotaz baliatuko da klasean.
- Azalpena ematen den heinean edo eta azaldu ostean, galderak luzatuko dizkie ikasleei, bi aldean arteko interakzioa emango delarik. Honela, edukiak barneratuz joango gara ere.
- Azalpenen ondoren testu iruzkinak, galderak, galdetegi teorikoak eta kasu praktikoak burutuko dira klasean. Batzuetan bakarkako lana inplikatuko dute ariketa hauek baina gehienetan launaka antolatuko dira ikasleak, horrela, irakasleok ikasketa/irakasketa kooperatiboaren 1,2,4 teknika aplikatuko dugu galdetegiaren ebazpenerako batez ere. Horrela taldeko lan kooperatiboaren abantailak klaseko dinamikan pixkanaka barne sartzen saiatuko gara, baita taldeko kohesioa lantzea bilatuko dugu.
- Komunikazio linguistikoa lantzeko kurtsoan zehar ikasle guztiek, irakaslearentzat eta gainontzeko kideentzat ozenki azaldu eta defendatuko ditu bere galderen eta ariketen erantzunak. Baita bidaliko zaizkien taldeka edo eta banakako lanak ere.
- Klasean gaur egungo errealitate ekonomikoaren berriak azaldu eta eztabaidatuko dira Interneten prentsa berriak eta erreportaiak hausnartzuz. Eduki guzti hauek irakasleak zuzenduko ditu.

OHARRAK:

- Edozein ikasgaik balio du komunikatzeko gaitasuna lantzeko. Gurean ere, arlo horri garrantzia eman nahirik, ahozko komunikazioa ikasleen ahozko erantzunetan landuko dugu (kohesioa eta terminologian egingo dugu azpimarra). Idatzizko komunikazioa berriz, idatzizko produkzioaren bitartez.
- IKTek ere egun duten garrantzia dela eta, zenbait baliabide erabiltzen saiatuko gara gela barruan: web orrialdeak, kalkulu orriak, drive ...

BALIABIDEAK:

- Testuliburua (lizentzia digitala): "Ekonomia" Mc Graw-Hill argitaletxea: ISBN: 9788448618629
- Irakasleak banaturiko apunte eta ariketa gehigarriak.
- Cromebook indibidualak eta Internetarako sarbidea (emaila, drive, bilaketak ...)
- Classroom (bere erabilera indartuko da klaseak aurrez aurrekoak ez badira, MEET-ekin batera).

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p>
<p>Klasean landutako materiari buruzko idatzizko froga bat egingo da gutxienez ebaluaketa bakoitzean, baita banakako edo taldekako lan bat ere. Horrez gain, eguneroko lana, parte hartzea eta zeharkako kompetentziak hartuko dira kontuan gelako behaketa zuzenaren bitartez. Horretarako INIKA erabiliko da. Ebaluaketa bakoitzean koadernoaren jarraipena egingo da.</p> <p>*Klaseak ez badira presentzialak, ikasleak egindako galdetegiak eta kasu praktikoak hartuko dira kontutan, ikaslea ebaluatzerako orduan.</p>	<p>➤ Idatzizko probak: %50</p> <p>Azterketen bidez neurtuko da. Azterketa bat baino gehiago eginez gero, bakoitzari ehuneko bat esleituko zaio edukiaren garrantziaren arabera. Azterketa atal honetan 4ko nota minimoa atera beharko da ekoizpenen eta zeharkako kompetentziekin batera ebaluazioko notaren batz bestekoa egin ahal izateko.</p> <p>➤ Ekoizpenak %30</p> <p>Ariketak eta ikasleek egindako lanak baloratuko dira (garaiz entregatutako banaka zein taldekakoak).</p> <p>Ebaluazioan zehar ikasgelan zein etxean eginiko lanak, taldeko dinamikak eta irakasleari entregatutako lanak baloratuko dira. Taldeka egindako dinamika, lanen parte hartze maila eta inplikazioa ere baloratuko da.</p> <p>Ekoizpenen atala gainditzen ez bada (gutxieneko nota 5 ez bada), ekoizpenen atala suspenditu egingo da eta beraz, baita ebaluazioa ere.</p> <p>Ebaluazioa ekoizpenen atalagatik suspenditzen bada, baina azterketak gainditu badira, azterketen nota gorde egingo da.</p> <p>➤ Zeharkako kompetentziak: %20</p> <p>Gelan ikasgaiarekiko jarrera baloratzen da. Parte-hartzea eta interesa baloratuko dira, baita etxerako lanak edo eguneroko ahalegina seriotasunez hartzea. Eta ez da onartuko ikasleen arteko zein irakaslearekiko errespetu faltarik. Atal hau behaketaren bidez baloratuko da klasean eta INIKAN erregistratuko da. <u>Eranskinetako errubrika</u> ere atal hau osatzeko erabiliko da.</p> <p>Ikasle bakoitza 10eko notarekin hasten da eta hortik gutxitu egingo zaio nota ondorengoak gertatuz gero: justifikatu gabeko hutsegitea (puntu bat), puntualitate falta (puntu bat), klasean jarrera txarra¹ (puntu bat).</p> <p>Irakasgaia gainditzeko hiru atal hauetako batz bestekoak 5 baino altuagoak izan beharko du.</p>

EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspena, errekupeazio-sistema...].

- Irakasgaiaren azken nota 3 ebaluaketen batz besteko nota izango da. Baina horretarako, 3 ebaluaketak gaindituak (Nota 5 edo gehiago) egon beharko dute.
 - Azterketak gainditu baina ebaluazioa suspenditu egin bada lan bat/batzuk entregatu beharko dira. Atal horiek berreskuratzen badira Sekoa lortuko da gehienez.
 - Ebaluazioko azterketa/k ez badira gainditu, Ikasgaia berreskuratzeke, idatzizko froga bat egingo da. Froga hau ebaluazio osoko edukiekin egingo da.
- Berreskurapen azterketa gainditzen bada, ebaluazioko nota gehienez 6 izango da eta honela jarriko da:
- Berreskurapen nota 5 eta 7 artean badago = 5 puntu kontzeptuetan ebaluaketa horretan.
 - Berreskurapen nota 7 tik gora badago = 6 puntu kontzeptuetan ebaluaketa horretan.
- Ebaluazio baten berreskurapena gainditzen ez bada, atal horren azterketa egin beharko da **Azkenean**.
 - **AZKEN** nota osoak borobiltzerako orduan, hamartarra 6 edo handiagoa bada, gora borobilduko da. Hamartarra 6 baino txikiagoa bada, behera borobilduko da. Beti ere ebaluatuko den ikaslearen nota gainditua denean.

OHARRAK

Eskatuko diren **zeharkako kompetentziak**¹ hauek izango dira:

1. Errespetua eta Ikastetxeko funtzionamendu arauak betetzea (Gida didaktikoa).
2. Klaseetan parte hartzea:
 - Jarrera aktiboa eta positiboa (ez hitz egin, trabarik ez egin, arreta ikaskideei, irakasleari, ...)
 - Lan pertsonala egitea.
 - Talde lanetan parte hartzea.
 - Klaserako beharrezkoa den materiala ekartzea.
 - Lanen eta jardueren epeak betetzea.
 - Hutsegiteak egin ondoren, egunean jartzea.
 - Egingo diren ekintza osagarrietan parte hartzea eta jarrera ona erakustea.
 - Irakasle eta ikasleekiko errespetua.
 - Elkarrizketa eta debateetan jarrera baikorra.
 - Bai gelan bai koadernoetan txukuntasuna eta garbitasuna.
 - Euskara erabiltzea komunikatzerako orduan.

Batez ere puntu hauek kontrolatuko dira eta zuzendaritzari horien berri emango zaie bertaratze parte desegokien bitartez:

- Mugikorra klasean erabiltzea (ezin da ez entzun ez ikusi).
- Hardware eta softwarearen erabilera txarra.
- Ikasgeletan jan edo edan.
- Errespetu falta irakaslearekiko edo ikasleekiko.

ARAZO EGOERA

ARLOA/ IKASGAIA: EKONOMIA
IZENBURUA: Kontu korrante eta kreditu txartelen erabilera
Maila: 4. BDH
SAIOAK: 3-4
PROPOSAMEN ARRAZOIA: Gizartean diru fisikoaren erabileraren murrizketa eta bere ondorioak.
ARAZO EGOERA: <p>A. TESTUINGURUA: Geroz eta ohikoagoa da gure gizartean diru fisikoa ez erabiltzea eguneroko eragiketetan eta ondorioz txartelen, ordainketa digitalen eta transferentzien erabilera zabaltzen ari da. Tresna hauen ezaugarriak, erabilera, abantaila eta desabantailak ez ulertzea arazo larriak ekar ditzakete gure egoera finantzarioetara eta ondorioz gure eguneroko bizitzara ere.</p> <p>B. ARAZOA: Internetetik zerbait erosi nahi dugu: zein da era egokiena ordainketa burutzeko? Arriskutsuak dira ordainketa digitalak? Epeka ordaindu dezaket erosketa txartelarekin? Noiz komeni dute epekako ordainketek? Zein kostu dute? Kutzazain ezberdinak daude gure hiriko kaleetan. Non atera behar dut dirua? Komisioak kobratu ahal dizkirate? Hobeto da leihatilara joatea? Zer dira <i>paypal</i> bezalako tresnak? Sakelako telefonoarekin ordainketak nola funtzionatzen dute? Egunero burutzen ditugun eragiketak dira hauek eta galdera guztiak argitzeko beharra dago kontsumitzaile bezala babestuta egoteko...</p> <p>C. XEDEA: Pentsamendu kritikoa izatea. Aukera ezberdinen analisia burutzen ikastea guretzat merkeena / hobereena den aukera detektatzeko, beti komisio, interesak eta antzekoak minimizatuz edo ekidinez. Azken finean, egokienaren aldeko erabakia hartzeko prozedura bat existitu behar dela ulertzean datza, merkatuan dauden entitate ezberdinen ordainketa moduen informazioa lortuz, informazio hauxe era egokian interpretatuz eta baloratuz . Gure bizitzan erabaki hauek zer nolako ondorioak ekar dezakeen ulertzea ere funtsezkoa izango da.</p>
ATAZA: Txosten bat egitea, diru fisikoa inplikatzeko ez duten ordainketa modu edo bide guztiak edo familiarrenak bilduta. Bakoitzaren funtzio edo erabilera finantzarioa, abantailak eta desabantailak jasoko dira eta beren erabilera segurua izateko hartu behar diren neurriak ere jasoko ditugu txostenean.
OINARRIZKO KONPETENTZIAK : <p>A. Zeharkako konpetentziak:</p> <ol style="list-style-type: none">1. Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.2. Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia.3. Elkarbizitzarako konpetentzia.4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.5. Izaten ikasteko konpetentzia. <p>B. Diziplina konpetentziak:</p> <ul style="list-style-type: none">Matematikarako konpetentziaKonpetentzia sozial eta zibikoaHizkuntza eta komunikaziorako konpetentzia
Helburu didaktikoak:

- Beraien errealitatean eta beren familien eguneroko jardueran ordainketak burutzeko erabili daitezkeen ordainketa aukerekin erlazionatuta dauden produktu finantzarioei buruzko informazioa lortzea.
- Kalkulu-prozedurak erabiltzea ordainketa bide hauen komisioak eta interesak nola aplikatzen diren ulertzeko, baita zorpetze mailaren kontzeptua lantzeko.
- Talde dinamikan parte hartzea, bertan ordainketa bide ezberdinek inplikatzan dituzten onurak eta arriskuak plazaratuz eta talde kide guztien artean ondorio horiek adostuz gero, gainontzeko ikaskideei ideiak aurkeztua.
- Kontsumitzaile bezala irizpide pertsonal arrazoituak lantzea ordainketa baliabideen erabilerari buruz eta hauen segurtasuna bermatzeko eman behar diren baldintzei buruz.

Jarraibideak:

- 4 pertsonak osatutako talde bakoitzak:
 - Arazoaren egoera aurkeztu ostean, irakasleak gidoi bat emango die aztertu behar diren ordainketa bideak zehaztuz: banku transferentzia,txekea, zordunketa txartela, kreditu txartela, txartel digitala, app-ak, kutxazainak, *pay pal* ...
 - Ikasle bakoitzak bere familia kideei ordainketa modu hauen erabilerari buruz galdetuko du eta oharrak hartuko ditu: zenbat txartel dauden etxean, zein motakoak, txekeak erabiltzen dituzten, banku app-ak sakelako telefonoetan dituzten etab.
 - Banaka etxean Interneten ikertuko dituzte zerrendako produktu guztiak, produktu hauen ezaugarri, abantaila eta desabantailak jasoz.
 - Gero binaka klasean konparatuko dituzte kontsultatu dituzten web ezberdinak eta bikotearen informazioa bateratuko da.
 - Azkenik bi bikoteak bilduko dira, duten informazio guztia osatu eta adosteko. Horren ostean aurkeztuko dute klase osora beraien txosten finala zerrenda eta ondorioekin.

ERANSKINA: ZEHARKAKO KONPETENTZIAK ebaluatzeko ERRUBRIKA

ZEHARKAKO KONPETENTZIAK	ADIERAZLEAK	10-8 (aurreratua)	7-5 (tartekoa)	4-1 (hasierakoa)	HAZTAPENA
EK NIIK	Errespetua (ikaskideekiko, irakasleekiko, langileekiko), puntueltasuna.	Ez du irakasle zein ikaskideen hitza eteten, errespetuz aritzen da, beti puntual etortzen da.	Batzuetan irakasle zein ikaskideen hitza eteten du, Gehienetan puntual etortzen da.	Sarritan oztopatzen du. Klaseko materiala ez du modu egokian erabiltzen. Normalean berandu iristen da.	%35
HDKK IPIK EK EEK NIIK	Lana (bakarka, taldeka), Interesa, parte hartzea, autonomia, materiala.	Klasean modu egokian parte hartzen du, behar den materiala ekartzen du eta lan egiten du.	Batzuetan ez du lanik egin. Batzuetan ez du materiala ekarri.	Gutxitan egiten du lana. Gutxitan ekartzen du materiala.	%40
HDKK EK	Euskararen erabilera.	Beti euskara erabiltzen du. Modu txukunean idazten du.	Batzuetan gaztelania erabiltzen du. Zailtasun handiak ditu euskaraz idazteko.	Gutxitan erabiltzen du euskara edo ez du euskaraz egiten. Oso gaizki idazten du euskaraz.	%25

HDKK: Hitzez, hitzik gabe eta Modu digitalean Komunikatzeko Konpetentzia.

IPIK: Ikasten eta Pentsatzen Ikasteko Konpetentzia.

EK: Elkarbizitzarako Konpetentzia.

EEK: Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia.

NIIK: Norbera Izaten Ikasteko Konpetentzia.

EBALUAZIO TRESNAK:

- Behaketaren bidez: irakaslearen koaderno, Inika eta Errubrika honen bitartez.